KOSTALDEA

GOIZEZ

ARRATSALDEZ

12:24 ·
06:00 · 18:58

MAREAK



PABLO S. QUIZA

ZARAUTZ. Zarauzko hondartza hegazkinetik hartuta.



PABLO S.QUIZA

LEKEITIO. Bidaiako azken herrixka da Lekeitio, handik Hondarribira itzultzen da berriz abioneta.



PABLO S.QUIZA

EUSKARAZZZZ. Lau lagunentzako lekua dago abionetan.

(Aurreko orrialdetik dator)

Batez besteko 250 kilometro orduko abiaduran, lurretik 700 metrora hegan egin zuen abionetak. Lekeitio eta Donostian, apur bat gehiago hurbildu zen, 500 metroraino; autoak eta pertsonak ere bereiz zitezkeen, ikustekoa benetan.

Segurtasunari dagokionez, sekulako lasaitasunez aritu zen airean. Tarteka, lurrera hurbiltzen zen heinean, turbulentziak nabari zitezkeen, baina inolako arazorik gabe lurreratu zen.

Aukeratutako batzuk besterik ez dute halako ikuskera berezitik gure inguruetako paisaiak ikusteko aukera; baina benetan merezi du.

plisti-plasta

San Fermin Txikiko jaietan bi erraldoi berri izango dira

Hemendik egun gutxira izango diren San Fermin Txikiko jaietan bi erraldoi berri izango dira. Bi erraldoiak larunbatean aurkeztuko dituzte San Frantziskoko plazan. Bi erraldoiak herriko gazte talde batek egin ditu eta etorkizunean beste hainbat erraldoi egingo dituzte. Helburua aro klasikoak unibertsoa azaltzen zuten elementuak islatzea da: ura, haizea, sua eta lurra. Datorren astean erraldoiei lotutako hainbat ikuskizun izango da.

Donostiako kultur etxeek 273 ikastaro eskainiko dituzte

Donostiako kultur etxeek 273 ikastaro eskainiko dituzte aurtengo neguan. Ikastaroak haur, gazte eta helduentzat izango dira eta literatura, musika eta ikus-entzunezkoak bezalako gaiak jorratu dira. Ikastaro horien artean 228 helduentzat izango dira, 18 gazteentzat eta 27 haurrentzat. Helduen ikastaroen erdia euskaraz izango dira. Gazteei zuzendutakoen artean bost euskaraz izango dira eta haurren 20 ikastaro izango dira euskaraz.

JOSE MANUEL DIEZ

ATERKI ETA TXAPEL SALTZAILEA



KEPA UGARTEI

«Lau tanta egiten badu, zamarra jarri eta listo»

Kepa Ugarte | **BILBO**

Nahiz eta zenbaitetan euria egin, ez dirudi uda sasoia egokia denik aterkiak saltzeko. Jose Manuelek argituko digu. *La casa de los paraguas* dendan lan egiten du berak.

■ Uda garai txarra da aterkiak saltzeko, ezta?

Santa Barbararen parekoa da hau, ez badu euririk egiten jendeak ez du aterkirik erosten. Gainera, salmentei begiratuta aurrekoa baino makalagoa izan da aurtengo uda. Euri gehiago egin zuen iaz, abuztuan. Nahiz eta eguraldi txarra datorrela iruditu, zortzi edo bederatzi egunetan euria egin behar du, jendeak aterkia erosteko. Lau tanta besterik ez badu egiten, zamarra jartzen dute eta listo.

■ Txapelak, aldiz, asko saltzen dira.

Bai, txapel asko saltzen dira udan. Gehienbat, atzerritarren artean. Gainera, dantza taldeekin ere lan egiten dut. Txapel gorriak, praka zuriak, kaikuak, mendigoizaleak, eta horrelakoak erosten dizkidate taldeek.

■ Zergatik erosten dute gizonek txapela?

Janzteko ohitura dutelako erosten dute gehienek. Neguan txapela jartzen dute hotzik ez izateko eta, ohitura hartzen dutenez, urte osoan eramaten dute.

■ Euskal Herriko ohitura delako eramaten duena ere egongo da?

Bai, Euskal Herrian jaioak eta bizitza osoan txapela jantzi dutenak dira hauek. Gazteak ere, txapela janzten hasi dira, jada. Jaietan, *gamberra* deitzen diogun txapel handia eramaten dute.